



Lasuenandikoa (-a) etxebizitza

Aldaerak: Lasuengoikoa
Ahozkoa: Lásuen / Lásuen goikúe



43° 11' 1"

2° 33' 19"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

*“... la casería rústica titulada Lasuen-andicoa... situada en la barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende noventa y seis estados... y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuerdas divisiones y habitaciones...”
DJE, 3/ 54. or. (1871)*

Arestian aipatu dugun moduan, jatorrizko *Lasuen* etxeetatik (**Ikus Lasuen**) bigarrena dugu honako hau, *Lasuenandikoa*. Topatu ditugun aipurik gehienetan, *Lasuen Andicoa* (1757, BAH, A854/30. or.) moduan agertzen da, inguruan duen Lasuen baserriatik bereizteko. Lehen azaldu dugun moduan, bestea *Lasuen de Iuso* (1745, Bizkaiko su-erroldak) moduan dokumentatzen zen bitartean, hau *Lasuen de Suso* (1796, Bizkaiko su-erroldak) edo *Lasuen de alla* (1825, PE/1825) moduan agertzen da agiritan. XIX. mende erdialdetik aurrera *Lasuen-andicoa* (1871, DJE, 3/ 54. or.) forma nagusitzen da, gaur egun arte horrela mantenduz; *Lasuen-andicoa* (1928, BUA, 32. or.) eta *Lasuen andicoa* (1967, BUA, CE) formak izanik horren adibide. Ahozko erabilpenean, *Lásuen* edo *Lásuen goikúe* dira formarik erabilienak.

toponimia

Bi dira Euskal Herrian *-suen* amaiera duten izenak, *Lasuen* eta *Besuen* (**Ikusi Betzuen**), biak Berrizen eta inor ez da sekula esangura azaltzera ausartu. Agian bigarren osagaia *-guen* izan liteke aurrean *-s-* edukitzeagatik *-uen* bihurtua. Hori horrela balitz pentsa genezake lats *'erreka'* dugula eta esanahia *'errekagoien'* dela, baina oso zalantzazkoa da etimo hau. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak beste aldean dagoena esan gura du, *-Onaindiaren kontrakoa*.

Baserri-etxe galanta da, lau isurkiko teilatuduna, gutxitan ikusten dena baserrietan. Ez du zaharberritze askorik izan, eta bistan ditu XVI. mendean usatzen ziren silarriak ipar-mendebaldeko fatxadan. Alabaina, baserria, oro har, beranduagokoa da, eta XIX. mende hasieran hartuko zuen gaur egun daukan itxura.

Fatxada nagusia atarteko arkuak markatzen du, eta horrek egiten ditu egituraren antolatzaile lanak. Izan ere, horren aldamenetan zabaltzen dira leihoak: bina alboetan eta beste horrenbeste lehenengo solairuan, horiei gaineko bi txikiak gehitu behar zaizkielarik. Harlangaitza erabili bazuten ere, baoak harlanduzkoak dira. Horretan salbuespen dira beste fatxadetakoak, leihoak eta ateburuak egurrezkoak direlako.